

Komunikazioko ikasle talde batek dokumental bat egin du Korrikarentzat

2011/04/06

Hasieran, AEK-k erabaki zuenean Korrikaren 17. aldia Euskaltzaindia omentzeko erabiliko zuela, antolatzaileek pentsatu zuten liburu bat egitea, eta, horretarako, Aitor Zuberogoitiarengana jo zuten, berau karrera zuzendaria Ikus-entzunezko komunikazioan, Mondragon Unibertsitatean. Aitorrek baina, proposatu zien dokumental bat egitea, eta haiek onartu. 4. mailako hiru ikaslek hartu zuten erronka: **Ekaitz Herrera, Alex Silva eta Iker Ugalde**. Hauentzat karrera amaierako proiektua izan da. Horregatik, irakasle bat izan dute tutore, Iban del Campo. "Guretzat aukera paregabea izan da, ikasketak amaitu gabe film luze bat egiteko modua izan baitugu. Hori, gaur egun, ez da batere erraza", adierazi du Alex Silvak.



Haria

Dokumentalean, ikasle bat lan akademiko bat egin beharrean dago, eta hasten da informazioa biltzen Euskaltzaindiak zelako lanak egin dituen euskara batua, alfabetatzen mugimendua eta euskalkien gainean. Euskaltzaindiaren historiak harrapatu egiten du ikaslea, konturatzen baita euskal akademiak gaztetasuna eta aurrera egiteko grina dituela. Horra dokumentalaren haria.

Hariaren osagarri, dokumentalgileek 30 lagun elkarrizketatu dituzte. Horietako batzuek lotura estua dute Euskaltzaindiarekin: Andres Urrutia, Jean Haritxelhar, Xabier Kintana, Miren Azkarate, Joan Mari Torrealdei, Jose Luis Lizundia... Beste batzuk, berriz, oso ezagunak dira euskalgintzan: Pello Zabala, Xabier Mendiguren Bereziartu, Jose Angel Iribar, Aizpea Goenaga, Karnele Jaio, Dionisio Amundarain...

Martxoaren 25ean aurkeztu zen dokumentala Kursaal jauregian, Donostian. Hemendik aurrera, berriz, herri askotan erakutsiko da, Korrikarekin batera.

Korrika

Korrikaren 17. edizioa apirilaren 7an abiatuko da Trebiñutik, eta apirilaren 17an amaituko da, Donostian, bertako Bulebarrean. Egun horietan Euskal Herriko hamaika herri eta auzo bisitatuko ditu, Maitatu, ikasi, ari... euskalakari lelopean.